



ELGOIBAR - 1078. zenb. XXV urtea - 2018-06-01



BARREN
TOKIKOM

in gure historia idazten

Elgoibarko
higi. erosi
herriak irabazi

TXANKAKUA

ERABILI TXARTELA

EKAINAREN 1ETIK UZTAILAREN 31RA
ELGOIBARKO TXANKAKUA TXARTELAREKIN
EGINDAKO LEHENENGO EROSKETAREKIN
MOTXILA BAT IZANGO DUZU OPARI
ESKANTZA AGORTU ARTE

Barren 25 urte

Eskerrik asko!

Ez daukagu berbarik barixakuan BARREni eman zenioten babes eskertzeko, eta ezta banan-banan eskertzeko modurik ere. Irudi ikusgarria osatu genuen elkarrekin, eta gogoangarria egin genuen maiatzaren 25a. Duela pare bat hilabete hasi ginen protagonistoi deika, eta izugarria izan da zuen erantzuna. Bagenekien eguraldiak lagunduz gero, argazki dotorea osatuko genuela barixakuan, sinetsita geundelako zuen onena emango zenutela, eta halaxe izan zen. Hala, 18:00ak aldera euria goian behean hasi zuenean, negar malkoren bat edo beste ere isuri genuen, plaza bueltako aterpe guztiak jendez beteta segitzen zutela ikustean. Ez kezkatzeko esan zeniguten, atertuko zuela eta ez ginela gure ideia zoro hau gauzatu gabe geldituko. Busti beharra bazegoen ere, bustiko ginela, beste 25 urtean ez genuela euritan busti beharrik izango-eta BARREn alde, baina zorionez, atertu zuen sasoirako eta bete genuen plaza. Sekula ez besteko babes sentitu genuen, eta ez diogu gezurrik beste 25 urte betetzeko bultzada jaso genuela diogunean.

Mila esker, beraz, plazara batu zinetenoi eta antolakuntza lanetan lagundu zeniguten boluntario guztioi. Eskerrik asko baita ere Elgoibarko eta Mendaroko udalei, plaza bueltako tabernariari, esatari eta "artzai" lanetan jardun zineten Mailalen Astigarraga, Ainhoa Mendibil eta Ion Telleriari, ekitaldi amaierakoa ondu zenuten Jasone Osoro eta Jon Olivaresi, eta lurreko zintak kentzen lagundu zeniguten neska-mutiloi. Gure eskerrik beroena, era berean, ostiralekoa betiko erretratututa gelditu zedin zuen etxeko balkoiak laga zenizkiguten Benantzio Otaegiri, Mari Karmen Azpiazu eta Nina Perezi eta Etxeberria-Osoro familiari, eta zer esanik ez, zuen eki-paok hartuta argazkiak ateratzen jardun zenuten Julen Ansola, Eire Vila, Aitor Lauzirika, Viktor Gamiz, Ander Soraluze, Iñigo Lamelas, Rafa Alkorta eta Mikel Askasibarri. Ez dago zuen guztion aterkipea baino babes handiagorik!

Barixakuari kantuan eta dantzan eman genion azkena, lagunarte ederrean, eta martitzenean, BARREnek Elgoibarri eta Mendarori egindako ekarpenaren inguruan aritu zitzaizkigun berbetan Aitor Gisasola, Ane Odria eta Agurtzane Garcia Musika Eskolako auditoriumean, Ainhoa Lodoso BARREneko estreinako kazetari izandakoak gidatutako mahai-inguruan.

Bada horixe, lagunok: historikoa egin dugula, nekez ahaztuko duguna, eta balio dezala honek gure historia elkarrekin idazten jarraitzeko.

Mila esker!



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldeggi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpilagga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Araniza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UDAL
AUZANTZERIKOA

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA


(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua











Udal Musika Bandaren Rock Gauan Alex Sardui, Jon Gurrutxaga eta Jon Zabala arituko dira

Rock Gava antolatu du Elgoibarko Udal Musika Bandak ekainaren 8rako. Maalako parkean izango da, 22:30ean.

Elgoibarko Udal Musika Bandak eta herriko musikari talde batek 2016an eskaini zuten estreinakoz Rock Gava eta talde ezagunenetarikoen kantuak jo zituzten. "Jende pila bat gerturatu zen eta askok eskatu ziguten errepikatzeke", esan du bandako zuzendari Gorka Mujikak. Laz, Kalegoen plazan aritu zen banda Celtas Cortos lagun zutela eta plaza gainezka izan zenez, aurten ere Maala hala ikusi nahi lukete.

Gatiburen doinuak eta bertsoiak

Aurten rock doinuetan arituko da banda, besteak beste Led Zeppelin eta Pink Floyden abestiekin. Hiru kantari izango ditu laguntzaile, bi elgoibartarrak: Jon Gurrutxaga eta Jon Zabala. Hirugarrena, berriz, Gatibu taldeko abeslari Alex Sardui izango da.



laz Celtas Cortosekin aritu zen Udal Musika Banda kontzertu berezian.

Jon Gurrutxaga musikaria orain dela bi urte ere aritu zen bandarekin eta oraingoan bertsoiak eskainiko ditu. Ehun Kiloko kantari Jon Zabala aurten egingo du estreinua bandarekin abestiei bere estiloa emanez. Kanpotik etorriko den izarra Gatibu taldeko Alex Sardui izango da. Hain zuzen ere, bere taldeko abestiak eskainiko ditu.

Kontzertu berezi honetarako jende asko espero dute antolatzaileek. "Bandako gainontzeko kontzertuetara jende asko etortzen da, eta gazteak erakarzteaz zailagoa bada ere, uste dugu kontzertu honek behintzat erakarriko dituela. Horregatik, gure kontzertuetan ohikoak ez direnei esango nieke ez galtzeko aukera hau eta etortzeko".

Jose Martin Urrutia 'Txotxe'-ren marrazki, postal eta antzezlanak izango dira ikusgai Kultur Etxean eguenetik aurrera

Otsailean hil zen Jose Martin Urrutia Txotxe sortzaile eta antzerkilaria. Bere antzezlanak jende aurrean azaldu zituen arren, izan dira urteotan hain agerian geratu ez diren zenbait lan, marrazkiak, batez ere. Beraz, antzerkian gertuko izan zituenek eta lagunek Txotxe gogoan erakusketa ipiniko dute ekainaren 7tik 16ra bitartean Kultur Etxeko erakusketa gelan, 18:30etik 20:30era.

Antzerkia eta marrazkiak zituen gustuko, eta horiek lortuko ditu bere ibilbide osoa bilduko duen erakusketak. Izan ere, gertuko lagunek aitortu dute eurek ere harrিতuta gelditu direla hainbat gauzarekin eta horiek azalatu edo bistaratu nahi dituzte. Besteak beste, antzezlan askotarako kartelak egin zituen Txotxek Ekekeirekin, Taupadarekin, Durangoko Ikastolako taldearekin zein Karrikarekin, baita antzerki obra pila bat idatzi ere. Marrazkilaria modura bes-



Goazeko kideak eta Txotxeren lagunak Debako jardunaldietan.

telako lanak ere egin zituen. Esaterako, Elgoibarren Inauterietako kartelak edo Maalako Gune Askearentzako jaientarako irudiak. Bidaietako agendak ere egongo dira, baita oportetara joaten zenean bidaltzen zituen postalak ere, berak marrazten zituelako.

Txotxe oroitzeko ekitaldi gehiago ere izan dira, baina, egunotan. Debako antzerki jardunaldietan Durangoko Karrika antzerki taldeak Txotxeren azken antzerki obra eskaini zuen eta hango Goaz antzerki taldekoek omenaldia ere egin zioten.

'Euskaraldia' aurkeztu dute, euskaraz egin eta hizkuntz ohituretan eragiteko ariketa



Euskaraz jakin eta ulertzen dugunon artean euskaraz egiteko eta hizkuntz ohituretan eragiteko, azaroaren 23tik abenduaren 3ra artean Euskal Herriko 300 herritan egingo den ariketa da Euskaraldia, eta Elgoibarren eguaztenean auzkeztu zuten.

16 urtetik gora izan eta euskara ulertu edo dakiten herritar guztiak deitu dituzte parte hartzera euskaltzaleak aktibatu eta beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak egin ditzaten. Izenemate ofiziala irailan izango da, eta 800 eta 1.000 parte hartzaile artean bildu nahi dira Elgoibarren. Izena ematen dutenek formazioa jasoko dute. Partaideek bi rol aukeratu ahal izango dituzte: ahobizi edo belarriprest. Ahobizien baldintza euskaraz berba egiteko gaitasuna izatea da. Ulertzen duenari euskaraz egingo diote, berak erdaraz erantzun arren; ezezagunei ere lehen hitza euskaraz; eta erdaraz, euskaraz ez dakienari.

Belarripresten baldintza, berriz, euskara ulertzea da. Beraiei euskaraz egiteko eskatuko dute, ulertzeko gai direlako, nahiz eta, beharbada, erdaraz erantzun; ahobizi ere izango dira gune batzuetan.

Ariketa amaitutakoan honen gaineko ikerketa-lana egingo dute.

Robotika Dibertigarriaren Feria Antolatu du Elgoibarko Udalak domekarako

Industria bultzatu eta eremu tekniko zein teknologikoetan goimailako kualifikaziodun profesionalak lortzeko 7 eta 13 urte bitarteko umeentzako ekimena antolatu du Elgoibarko Udalak ekainaren 3rako: Robotika Dibertigarriaren Feria. Maalako parkean egingo dute 11:30etik 13:30era. Ane Beitia alkatearen esanetan, herriko enpresek urte asko daramatzate maila teknologiko handiko proiektuen aldeko apustua egiten eta horretarako eremu tekniko zein teknologikoetan goimailako prestakuntza duten profesionalak behar dituzte. Beraz, herriko gazteak teknologiaran mundura erakarri nahi ditu.

Bi ikastaro eta erakusketa bat izango dira azokan. Erakusketan Elgoibarko tailer teknologikoetan parte hartu duten ikasleen lanak erakutsiko dituzte. Tailerretan, berriz, gazteek programazioarekin eta robotikarekin lotutako proiektuak egingo dituzte, "modu dibertigarrian eta jolas-giroan".

7 eta 9 urte bitarteko umeentzat bi tailer antolatu dituzte. Batean, euren mundua diseinatzen ikasiko dute, eta bestean, lehenengo robota muntatu eta programatuko dute. 10-13 urteko gazteek gailu elektrikoak programatuko dituzte aurrez planteatutako erronka lortzeko.

EAJk dei egin du ekainaren 10eko giza katean parte hartzera

Gure Esku Dagok antolatuta, ekainaren 10ean, Erabakitze Eskubidearen aldeko giza katea egingo da Donostiatik Gasteizera bitartean. Elgoibartik eta Mendarotik ere pasatuko da, eta Elgoibarko eta Mendaroko EAJk parte hartzera deitu diete alderdikide, jarraitzaile eta herritarrei. Era berean, Elgoibarko EAJk Euskaraldia egitasmoan parte hartzera ere animatu ditu herritarrak.

Hegaztiak ezagutzeko irteera antolatu du Morkaikok ekainaren 9rako

Morkaiko Mendizale Elkarteak Hegaztiak ezagutzera joateko irteera antolatu du ekainaren 9rako. 9:00etan abiatuko dira Maltzagako bide gorriaren hasieratik eta Elgoibar inguruko hainbat lekutara joango dira ibilaldian, Asier Sarasua Aranberri biologo eibartarrak gidatuta. Antolatzaileek prismatikoak eta ogitartekoa eramatea gomendatu dute. Irteerarako leku mugatuak izango direnez, izena eman behar da aurrez 636 994 798 telefonora deituta edo e-posta honetara idatzita: morkaiko@morkaiko.eus.

Idazlan lehiaketan maila ona erakutsi dute partehartzaileek



Elgoibarko Udalak idazlan lehiaketa antolatu du, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez. 142 lan aurkeztu dituzte, eta epaimahaiak, Jasone Osoro, Jon Eugi eta Iñigo Otañok osatutakoak, horietako 28 saritu dituzte.

Lehiaketaren helburua ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzea izan da, eta epaimahaiak esandakoaren arabera, maila ona erakutsi dute ikasleek. Sari banaketan Jasone Osoro epaimahaikideak esan zuen orokorrean oso maila ona egon dela. "Elgoibarko ikasleek idazle batek behar dituen ezauzgarriak dituzte: irudimena eta idazteko maila txukuna. Hori da baloratu duguna: batzuetan, irudimena, eta besteetan, ondo idatzita egotea, ondo komunikatzea, kontakizunak hari bati eustea, istorio bat egotea". Martitzenean egin zuten sari banaketa Kultur Etxeko sotoan, eta honakoak izan dira sarituek:

- A maila (Diploma, 50 euroko bonua eta liburua): Duna Santos, Olatz Iranzo, Aitor Aranzabal, Maialen Azkonaga, Luken Arriola, Elur Esnaola, Josu Armentia, Naroa Ansola, Mikel Sastre eta Mikel Rodriguez.

- B maila (Diploma, 60 euroko bonua eta liburua): Irati Gimeno, Maren Aranburu, Danel Rodriguez, Miren Serrano, Elene Castrillejo, Iker Calvo, Sare Sainz eta Jon Etxeberria.

- D taldea (Diploma, 80 euroko bonua eta liburua): Eider Ansola, Marian Ahdadou, Naroa Rodriguez eta Malen Etura

- E taldea (Diploma, 100 euroko bonua eta liburua): Jurdana Alberdi, Nerea Barrutia, Naia Arocena, Iker Zubiaurre, Nahia Uranga eta Alain Rodriguez.

- F talde aipamen berezia (liburu bat opari): Iñigo Otaegi.

Mausitxako gazta hirugarren, Erroman

Mausitxa baserriko gaztak Erroma sarian hartu du parte. Italiako hiriburuko merkataritza ganberak antolatzen duen lehiaketako nazioarteko atalean Europakoak izan dira partaide guztiak, tartean, hogeitik gora, Idiazabal izendapenekoak. Kanpoan libre ibiltzen diren animalien esnearekin egindako gaztetan, Mausitxak hirugarren saria eskuratu du.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak atean salgai

Borobilean, bizikidetzari buruzko ikuskizuna, eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek gaur, ekainak 1, 18:30ean, Mendaroko Ikastolako jo-lastokian. Oraindik badaude sarrerak eta atean bertan salduko dituzte 7 eurotan (Kapotadun kotxe-etako hurrek doan sartuko dira).

Ekainaren 9rako paella herrikoia antolatu du C.D. Elgoibarrek

Ekainaren 9an, zapatuan, paella herrikoia egingo dute Maalako parkean C.D. Elgoibarreko kide guztiak. Bazkide, guraso, jokalaria, entrenatzaile eta zale guztiak izango dute joateko aukera. Jokalaria eta entrenatzaileak doan joan ahal izango dira, eta gainerakoek ordaindu egin beharko dute; 15 euro nagusiek eta 6 euro gazteek eta umeek. Bazkaritarako txartelak domekara arte erosi ahal izango dira Jai-Alai tabernan edo Kaia kafetegian.


Egileko Eduardo Junkera izendatu dute Adegiko presidente

Adegi, Gipuzkoako Enpresarien Patronalak, urteko batzarra egin du asteon. Pello Gibelalde presidentea kargua utzi du, sei urteko agintaldiaren ondoren, eta Eduardo Junkera izendatu dute presidente. Mendaron dagoen Egile Corporation XXL Oinarri Teknologikoko Enpresa Korporazioaren sortzailea eta presidentea da Junkera, bai eta Elkar-giko eta Hegan klusterreko presidenteordea ere.



etxe gain
BIZIGUNEA

www.etxegain.com



Neurrira egindako etxeak, ikusmira handikoak

Etxegain. Erdigunetik gertu, eta era berean, inguru aske eta irekian. Metro gutxi bazuk oinez egin, eta herrigunea bertan; tren geltokia, berriz, ondo-ondoan, eta autopista ere bertan, herritik azkar irteteko. Erosotasuna da Etxegainen beste ezaugarri bat: hiru logela, bi bainugela eta terrazadun etxebizitza, 160.000 eurotik hasita. Kalitatezkoa, neurrira egindakoa eta gune lasaian, amets ederak izatea estimatzen dutenentzat. Etxebizitza dotoreak eta lasaiak, zaratetatik urrun. Etorkizunerako kalitatezko aukera argia.



Elgoibarko bulegoa: San Frantzisko kalea, 32, behea.

Nolakoak dira Etxegain etxebizitzak?

Eraikuntza-kalitateaz gain, zabaltasuna da etxeen ezaugarri nagusia. Erosleek, besteak beste, zera baloratuko dute: logela guztiak bikoitzak izatea (10 metro koadrotik gora) eta egongelek 20 metrotik gora edukitzea. Neurri hauek ez dira ohikoak gaur egun salgai dauden etxebizitza askotan, eta hori bada baloratze-koa. Bestalde, terrazak ere zabalak dira, eta bi metroko sakonera dute, altzariak jartzeko: jatorduetarako mahaiak edo sofak jarrita, etxetik bertatik ilunabarrez gozatzeko aukera ezin hobea izango duzue.

Eta prezioa?

Etxegainek eskaintzen duen guztirako, prezioa ezin hobea da. Hiru logela, bi bainugela eta terrazadun etxebizitzak, 160.000 eurotik hasita.

Zein moduko etxebizitzak daude?

Solairu arruntetako etxebizitza guztiek hiru logela dituzte. Horrez gain beheko solairuko etxeek sekulako terrazak eta txokoak dituzte. Txoko hori egokituta, laugarren logela bat eta egongela zabal bat egiteko aukera dago. Bi solairuko atiko politak ere badaude tei-latupeko gune itxi eta eraikineko gunerik altueneko terrazekin; beharbada, Elgoibarko altuenak.

Nire etxebizitza egokitzeko aukera izango nuke?

Aukera bakar bat ere ez baldin badator bat zuk nahi duzun horrekin, GRUPO EIBAREK egokitzeko aukera eskainiko dizu, banaketa, material, akabera eta ekipamenduei dagokionean. Berrikuntza edo aldaketa horiek banan-banan baloratuko dira.



Salbak eta Mainerrek gustura lagunduko dizute San Frantzisko kaleko 32. zenbakiko bulegoan. Zeure gustuko etxea izan dezazun, laguntza osoa eskainiko dizute, GRUPO EIBAREN bermearekin.

Konfiantza ezinbestekoa da etxebizitza bat erosteko orduan eta GRUPO EIBAREN ondotxo dakigu hori. 3.600 etxebizitzatik gora saldu ditugu eta konfiantza da gure bermeetako bat. Proiektu sendoak eskaintzen ditugu, kalitatezko materialez egindako etxeak eta gaur egungo bizimodurako egokitutako egitura edo banaketa dutenak. Hitza betetzen dugula ziurtatzen dute gure bezeroek.



★
3 logelako
etxebizitzak
160.000 €-tik
hasita





elgoibar

WWW.ETXEGAIN.COM



3 ETA 4 LOGELAKO 21 ETXEBIZITZA
TERRAZA ZABALAK ETA
PERTSONALIZATZEKO MODUKO TXOKOAK
DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK
LOGELAK 10 M²-TIK GORAKOAK
EGONGELA GUZTIAK 20 M² -TIK
GORAKOAK
IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN TERRAZA
HANDIAK GARAIERAN



943 31 66 11
E: comercial@grupoelbar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

630 24 83 83
689 66 08 01

ODRIK FINANZAKOK PORK:
bankoa | Groups
Credito Agricolo

▶ Trinitate jaiei, agur

Trinitateak jai giroan joan dira Elgoibarren eta Mendaron. Barixakuan txarangak eta zirkoak alaitu zituzten kaleak Elgoibarren, eta Maala kantuan eta dantzan ipini zuten Angel Mariezkurrenak. Zapatuan baserritarren txanda izan zen. Ganaduak eta etxeko produktu onenak ekarri zituzten kalera saltzeko, eta Leku-Ederren, Baserrietako Sagardo dastaketa ere egin zuten. Bederatzi baserrietako sagardoak probatu ahal izan zituzten herritarrek, eta Armaziokoa izan zen bozkatuena. Baserritarren bazkariak eta emakumezkoen herri kirolek ere izan zuten tartea. Gavean danborradak hartu zituen Kalegoen plaza eta kaleak. Kanoi berriaren soinuz gain, izan zen beste doinu berririk ere, Txomin Mujikari omenaldia egin ondoren, berak danborradarako propio egindako pieza bat estreinatu baitzuten. Danbor eta kupel hotsekin batera txondorra, ikazkinak eta burdingileen karrozak ibili ziren kalean. Danborrada hotsek domeka goizean umeen eskutan hartu zituzten kaleak. Mendaron, berriz, ostiralean hasi zituzten ospakizunak Bizi-Poza txarangaren kalejirarekin eta Nerea Arriola herriko biolin jolearen kontzertuarekin, eta domekan eta astelehenean pilatu ziren gainerako ekitaldiak. Astelehenean, ikastolako umeek bertso jaialdia eskaini zuten, ohi legez.





Mayi Mujika eta Gorka de la Horra izan dira guretan onenak Zegama-Aizkorri



Maite Maiorak ezustekoa eman zuen domekan jokatu zen Zegama-Aizkorri maratoian, baina ohi ez bezalakoa, lasterketa laga behar izan zuelako 21. kilometroan. Duela bi aste ultra distantziako Munduko Txapelketan parte hartzetik zetorren Maiora, eta buruak ez zion lagundu. Azkenean, Remi Bonnet suitzarra eta Ida Nilsson suediarak jantzi zuten txapela. Gure ordezkari gehiago ere lehiatu ziren, baina, domekan. Gorka de la Horra izan zen denetan denbora onena egin zuena (4:38:32), eta haren atzetik helmugaratu ziren Ander Barrenetxea (4:41:51), Ioritz Conde (4:56:24), Gotzon Zulaika (4:58:11), Mayi Mujika (5:54:00), Ainhoa Lendinez (6:23:44) eta Asier Arzamendi (6:37:39). Hori domekan, baina barixakuan, Zegamako kilometro bertikala ere jokatu zen, Skyrrunner National Seriserako proba puntugarria, eta han ere parte hartu zuten bi elgoibartarrek. Iñigo Larizek bederatzigarren egin zuen sailkapen nagusian, 35:58ko denborarekin, eta Ainhoa Lendinezek 45:21eko denboran osatu zuen bertikala. Txapela, berriz, Remy Bonetek eta Christel Dewallek jantzi zuten.

Abadiño gailendu da Xake Partida Azkarren Txapelketan



Hamabi talde aritu ziren lehiakiroldegian taldekako Elgoibarko Xake Partida Azkarren Txapelketan, eta iaz moduan, Abadiño laukotea gailendu zen. Jokaturako 11 partidetan 26 puntu batu zituen Abadiño taldeak. Arrasate Arlutz taldea sailkatu zen bigarren eta Anaitasuna Kakuke taldeak egin zuen hirugarren. Bestalde, Felix Manso urnietarrak irabazi du Elgoibarko 4. Xake Txapelketa. Jose Luis Larrañaga elgoibartarrak irabazi zion finala. 32 xakelari aritu dira lehiakiroldegian, martxoaren 12an hasi zen txapelketan.

Unai Loiola eta Xabier Loiola Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako podiumean



Unai Loiola txapelburua izan da Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketan eta hirugarren egin du Xabier Loiolak. Taldekako sailkapen nagusian, San Migel A taldeak irabazi du txapelketa, 140 txirlorekin. Bikotekako txapelketan ere bolari elgoibartarrak izan dira nagusi: Jabier Osoro eta Unai Loiola izan dira onenak, 69 txirlorekin eta Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea sailkatu dira bigarren, 67ekin. Bolari eguna, berriz, ekainaren 2an jokatuko dute, Elgetan.

Deca eskubaloit taldeak irabazi du Gipuzkoako Kopa



Sanloko Deca taldeak 31-25 irabazi zion Orioko Eskubaloit Lagunak taldeari zapatuan IMH kiroldegian jokatu zuten Gipuzkoako Kopako finalean. Decak denboraldi aparta biribildu du seniorretako Lurraldeko 2. Mailako Kopa irabazita, aurrez, apirillean, Espainiako Eskubaloit Txapelketako Lauko Finala jokatu baitzuten zaleen aurrean.

Idorbetik abiatuko da bihar Morkaikok antolatu duen Debabarrenako Raida



Abenturetako Raiden Iparraldeko Ligako proba puntuagarria izango da Morkaikok Mendizale Elkarrekin biharko antolatu duena. Orientazio proba honetan hainbat proba gaingitu beharko dituzte partehartzaileek, eta berrikuntzarik ere izango da: espeleologia proba. Hala, koba barruan rappel bat edo beste egin beharko dute partaideek. Bestalde, gurasoek seme-alabekin parte hartzeko aukera ere izango dute, familientzako modalitatean. Hasiera Idorben izango dute batekoek zein bestekoek.

Hirugarren Mailako igoeretako kanporaketen emaitzen zain egon beharko du Haundik

Haundik 4-1 irabazi zion Andoaingo Euskalduna taldeari, aurreko zapatuan Mintxetan jokatu zuten igoera kanporaketako itzulerako partidari. Bukatu da denboraldia elgoibartarrentzat Hirugarren Mailako igoeretako kanporaketen zain egon beharko dute orain, Ohorezko Erregional Mailarako igoera lortuko duten jakiteko. Lehiari diharduten lau euskal taldeak azken kanporaketarako sailkatzea komeni zaio Haundiri. Ekainaren 24an bukatuko dira igoera kanporaketak, baina ekainaren 10ean ere argitu daiteke Haundiren etorkizuna. C.D. Elgoibarreko kadeteek Mintxetan jokatu zuten Euskal Ligara igotzeko Hiruko Finala, baina ezin izan zuten igoera lortu. Lehen partidari 1-2 galdu zuten Amurrioko taldearen aurka, eta Bilboko Deustoren aurkako partida ere galdu egin zuten (0-1). Bizkaitarrek lortu zuten igotzea. Lehen Erregional mailako taldeak ere ez zuten zortetik izan Kopako finalean, eta 1-3 galdu zuten Astigarragako Mundarro taldearen aurka, Orion jokatu zuten finalean.



Alberto Fernandez Himalaiara abiatuko da



Nepalgo Drangnag (6.801 metro) mendira espedizioa egingo dute Alberto Fernandez elgoibartarrak eta Mikel Zabalza iruindarrak urritik azarora bitartean. Bi mendizaleen egitasmoak irabazi du Joxe Takolo beka. Goi mendizaletasuna bultzatzeko, Azpeitiko Udalak, Lagun Onak Mendi Bazkunak eta Euskal Herriko Mendi Federazioak banatzen duen 3.000 euroko beka da Joxe Takolo. Zazpi lan aurkeztu dira bekarako guztira, eta epaimahaiak Zabalza eta Fernandezen proiektua aukeratu du, "teknikoki dituen ezaugarriengatik" eta "originalena eta egokiena" delako.

June Loidi, Munduko Eskubaloi Txapelketara



Sanlo eskubaloi taldeko June Loidi junior mailako Espainiako selekzioaren deialdian sartu du Alfredo Rodriguez hautatzaileak Munduko Txapelketarako. Poloniako Kielce hirian jokatu dute txapelketa, abuztuaren 7tik 19ra. Espainiako taldeak Hego Korea, Frantzia, Tunisia, Kazakhstan eta Montenegroko taldeen kontra jokatu du bere multzoan. Munduko eskubaloi txapelketa bat jokatzeko aukera izango duen bigarren elgoibartarra da June Loidi. Nora Kortaberriak junior mailakoa jokatu zuen Errusian, 2016an.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka, gauez edo etxeko langile modura. ☎ 631 891 709

Adinekoak zaintzeko prest etxeko langile moduan. Garbiketa lanetarako ere gertu. ☎ 684 173 729

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Etxeko langile moduan, asteburuetan ere bai. ☎ 688 652 050

Adinekoak eta gaixoak zaintzeko prest. Arratsaldeetan. Esperientzia daukat lan hauetan. ☎ 617 571 210

Asteburuetan adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Asteburuetan bakarrik. ☎ 631 613 245

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan aritzeko gertu. ☎ 612 518 050

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. ☎ 688 261 395

Adinekoen zaintzan, gidari edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest. ☎ 655 132 769

Adinekoen zaintzan edo elkarrean garbiketan lan egiteko prest. Ikasketak eta esperientzia ditut. ☎ 671 989 434

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka, egun osoz edo gauez. ☎ 631 907 807

Adinekoen zaintzan, lan egiteko prest nago. ☎ 622 037 598

Adinekoak zainduko nituzke, geriatri laguntzailea naiz. Ordukegi malgutasun handia. ☎ 646 931 162

Adinekoak asteburuetan edo orduka zaintzeko prest. ☎ 631 558 243

Adinekoak asteburuetan zaintzeko prest. ☎ 612 411 026

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan ere. ☎ 663 470 706

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan ere. ☎ 631 644 267

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak daukat. ☎ 631 756 284

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 632 621 940

Edozein lanerako prest. Esperientzia handia daukat sukaldari eta gidari lanetan. ☎ 655 676 402

Garbiketan edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile aritzeko prest. ☎ 631 556 507

Adinekoak zaintzeko prest. Garbiketa lanak, sukaldaritza eta plantxa barne. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat. Etxeko langile aritzeko prest. ☎ 631 406 177

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan egoteko gertu. ☎ 666 197 831

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan egoteko gertu. ☎ 631 565 350

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 612 311 026

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 631 657 380

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Arduratsua naiz. ☎ 632 877 170

Gaske arduratsua lanerako prest. Adinekoak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketan Erreferentziak eta esperientzia daukat. ☎ 631 756 284

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Ospitaletan, etxean bertan bizitzen zein orduka. ☎ 602 490 595

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza behar dut alokairuan Elgoibarren. ☎ 622 162 798

Etxebizitza berria salgai Santa Klara kalean. 75 metro koadro. Bi logela, bainugela, jangela-egongela eta sukalea. Oso argitsua, egun guztian barrena eguzkia sartzen da. Hormak eta lurrak berri berriak. ☎ 615 725 321/653 136 107

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. ☎ 686 420 642

LOKALAK.....

Lokala alokagai Olasoko industrialdean. 200 metro koadro + 70 metro koadroko solairu artekoa. Instalakuntza osoa eginda. ☎ 649 258 913

Mendaroko Arrats taberna alokagai edo salgai jubilazioagatik, interesatuak agertu tabernara edo deitu 943 755 058 telefono zenbakira.

OSPAKIZUNAK.....

1957an jaiotako ospakizuna uztailearen 7an. 12:00etan Kalegoen plazan. Luncha, bazkaria eta dantzaldia igma jatekean. 47 euro ingresatu eta kontzeptuan izena jarri Kutxabankeko ES95 2095 5036 5091 1797 4235 kontu zenbakian. Izena emateko epea: ekainak 30.

1963an jaiotako ospakizuna ekainaren 2an, Sigma jatekean. (luncha, bazkaria eta dantzaldia 55 euro / gaueko mokadutxoarekin 65 euro). Izena emateko azken eguna maiatzak 30. ES70 3035 0007 25 0071134765 (Euskadiko kutxa).

1973n jaiotako ospakizuna ekainaren 23an. 13:30ean hitzordua Kalegoen plazan. Bazkaria, musika eta gaueko mokadutxo Sigma jatekean. Izena emateko azken eguna: ekainak 18a sartu 55 euroko ingresa zenbaki honetan: ES 15 3035 0007 27 007 1135463

BESTELAKOAK.....

Oxelo markako salto egiteko patinete urdina desagertu da Tantaka tabernaren inguruan. Estimatu handitan daukagu eta izena idatzia dauka. Hartu duenak deitu. ☎ 699 143 767




ROSA M^a PINTADO

Etaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko jabe bat ez dago ados obra batzuk egiteko, etxejabeen batzar batean hartutako erabakiarekin. Azken batzarrean komunitate-buruari eskatu zion obra hori egiteko onartu eta sinatu den aurrekontua. Baita bere jabetzari dagokion eta ordaintzeko dagoen kopurua azaltzen duen akta ere. Jakin nahi nuke presidentek derrigorrez eman behar al dion dokumentazio hori.

Legearen azken berrikuntzak saiatzen dira komunitateetan zorrak saihesten. Arauen arabera, bilera hastean, komunitate kuotak ordaindu gabe dituztenek, deliberoetan parte hartu ahal izango dute, baina ezingo dute batzarrean hartzen diren erabakietan botorik eman.

Arau honen neurria boto eskubidea mugatzea baino ez da, ez ordea beste eskubide batzuk galaraztea, esaterako, komunitateko informazioa jasotzeari dagokiona. Beraz, ez presidentek ezta komunitateak ere, ezin dio etxejabe bati debekatu batzarrean hartu eta aktan jaso tako akordioen berri jasotzea.

Aholkua: Lege erregulazio honekin, erabakiak hartzean baztertu egingo da komunitatearen baitan oinarrizko obligazioak (komunitate kuotak ordaintzea) betetzen ez dituen jabe hori.

Enpresa kolaboratzailea:  P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar




Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Mikel**, maiatzaren 30ean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko partetik!




Zorionak, **Lander**! 4 urteko bete dituzu. Patxo ugari etxeko partez, eta bereziki lkerren partez.



Zorionak, **Maialen** zure 9. urtebetetzean. Ondo pasa lagun eta senideekin. Zorionak, bereziki Mikelen partetik.



Zazpi patxo handi eta mila zorion, **Martxel**. Etxeko eta batez ere, Gariren partez.



Zorionak, **Jon**! Gaur 8 urte! Ondo-ondo pasau eta patxo handi bat etxeko partez.



Zorionak **Endikari**, gure etxeko piratari, larunbatean 3 urte egin zituelako. Muxu asko etxeko partez.



Zorionak, **Mikel** eta **June**, maiatzaren 30ean, urtea bete zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



LAN DEIALDIA

LH eta DBHko Akademian lan egiteko curriculumak jasotzen dira. Interesatuak bidali helbide honetara:

akademiaelgoibar@gmail.com



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX


ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com



URETARAKO
TAPOIAK
NEURRIRA

IGERITARAKO
BETAURREKO
GRADUATUAK

ZATOZ INFORMATZERA!

1 BARIXAKUA

18:00 Piano jaialdia. Musika Eskolako auditoriumean.

18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna: *Borobilean*. Mendaroko Ikastolako jolastokian.

19:00 Elgoibarko dantzari bakarlarien erakustaldia. Kalegoen plazan.

19:30 *Xabier Arzallus Antia. Euskadiko historia politikoa* dokumentalaren aurkezpena. Antolatzailea: Elgoibarko EAJ. Elgoibarko Herriko Antzokian

2 ZAPATUA

10:00 Debabarrena Raida. Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkartea. Irteera Idotorben izango da. 11:30ean abiatuko dira familia modalitatean izena emandakoak ere, Idotorbetik bertatik.

10:30-13:30 Kirol eguna herriko enparantzan. Euria eginez gero, ikastolako patioan. Antolatzailea: Arno Guraso Elkartea.

10:30 Ikastolaren eguna. Kalegoen plazatik Ikastolara kalejira. Ikastolan jolasak, puzgarriak, tonbolak, bazkaria eta dantza.

3 DOMEKA

11:00-14:30 Bigarren eskuko azoka Goñati pilotalekuan. Postua jartzeko 2.eskukoazokamendaro@gmail.com helbidera idatzi.

11:30-13:30 Robotika dibertigarriaren feria. Antolatzailea: Elgoibarko Udala. Maalako parkean.

17:00 'Bon Voyage' antzerkia eta dantza. San Agustin aretoan. Antolatzaileak: Ludoteka eta Mendaroko Udala.

5 MARTITZENA

19:00 Herri Eskolako ikasturte bukarako jaialdia. Eskolako patioan.

6 EGUAZTENA

19:00 Herri Eskolako ikasturte bukarako jaialdia. Eskolako patioan.

7 EGUENA

18:30-20:30 Erakusketa: *Joxe Martin Urrutia Txotxe, antzerkigintza eta bizitza marraztuz*. Astelehenetik zapatura maiztaren 17ra arte. Antolatzailea: Ekekei. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

8 BARIXAKUA

17:00 Kiribil. Maalako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

19:00 Dantza jaialdia: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Txistulari Taldeak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak parte hartuko dute. Kalegoen plazan (euria izanez gero, Lekuederreko karpan).

22:00 Dantza emanaldia: *Biraka zinema*. Mendaroko Goñati pilotalekuan.

22:30 Rock gaua. Udal Musika Banda, Alex Sardui, Jon Gurrutxaga eta Jon Zabala. Maalako parkean.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00		
1 BARIXAKUA	2 ZAPATUA	3 DOMEKA	4 ASTELEHENA	5 MARTITZENA	6 EGUAZTENA	7 EGUENA	8 BARIXAKUA
Egunez Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Yudego	Egunez Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente
Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112




Juan Rodriguez Poza
"Juanillo"

2018ko maiatzaren 30ean hil zen, 69 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Angel Urbietta Ansola
"Olia"

2018ko maiatzaren 20an hil zen, 81 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Mila Roteta Zulaika


2017ko maiatzaren 30ean hil zen, 68 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, ekainaren 3an, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Juan Larrea Garate

2017ko ekainaren 3an hil zen, 85 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, ekainaren 3an, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



X. URTEURRENA

Asier Aranberri Guereño

2008ko maiatzaren 31n hil zen, 23 urte zituela.

Maitasunez beti gure bihotzean.

Elgoibarko zure lagunak





Eire Vila

Jone Olaizola



// Ahazten ez duzun kantua zure ezpainetan, kantua izan nahi dut... itsasoa izan nahi dut, zure ekaitzetan, itsasoa izan nahi dut... ta non ezkutatzen zinen orain arte, urte luzeegi hauetan agertu gabe, helduidazu eskutik estu arren, ilun dago eta ez dakit bueltatzen...". Berri txarrak taldearen abestiak dioena. Denok nahi izan diogu noizbait norbaiti eskutik heldu eta bere ondoan gaudela erakutsi, halaber, guri eskutik hel diezaguten ere gustatzen zaigu. Ekainaren 1a da gaur, eman diogu hasiera Ekiren hilabeteari, nire hilabeterik gustukoenari, eta bete-betea dator gainera. Joango naiz, ez naiz joango, ez du ezertarako balioko, ez dut tuntunarena egin nahi, jende zoriontsua

herri libre batean... a ze lelokeria, ez da serioa, ez diot horko horri eskua eman nahi, ez gara herri bat; bai, bagara; ez gara talde bat; bai, bagara. Joango naiz, hor egon nahi dut, nire lekua da, herritarra naiz, ez gaudela geldi erakutsiko dut, ondo pasako dut, balioko du, arrazoi bat dut joateko, bi, hiru, hamaika arrazoi ditut, giltza naiz, iragana, oraina eta etorkizuna naiz. Hemen nago, eta eskua eman diot albokoari, eskuak altxa ditut eta olatua egin dut, bero egiten du eta tuntunarena egin dut, baina pozik nago. Milaka lagun gaude, eta mundiala izan da. Bihar ekainaren 11 izango da, bixamona izango da, bixamon gozo horietakoa izango da, eta gure eskuen itzala hor geratuko da, betiko. Hori bai hitz potoloa: betiko. Helduidazu eskutik, estu arren, oskarbi dago eta badakit bidea nondik den. Galdu egingo dozu?

“Denok nahi izan diogu noizbait norbaiti eskutik heldu”

17/18

CURSO KASTILERA
Matrikula epea ZABAIK
Plaza de matriculación ABIERTO

ONGI ETORRI
euskarara

UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara ikasleak - clases de euskara
www.udaleuskaltegiak.eus



UDA IKASTAROA

IRAUPENA: 80 ORDU

Ekainaren 25etik uztailaren 20ra
(4 ordu egunean)

PREZIOA: 123€

Ikasle eta langabetuentzako
prezioa: 77€

Bekatzeko sistema

MATRIKULALDIA: ekainaren 15era arte

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731
ELGOIBAR

Summer intensive

KET, PET, FCE eta CAE

Ingeleseko azterketarako prestakuntza berezia.

12-18 urte bitarteko gazteentzat

Uztailaren 2tik 27ra

(batxilergoko ikasleentzat berezia ekainean)

40 orduko ikastaroa.
Goizero 2 ordu.

Taldeak: 6-10 gazte.
Lekua: IMH.
Prezioa: 330 €

Frantseseko eta Alemaneko 40 orduko ikastaroak.

ILS Industry Language Services
Azkue Auzoa 1 (IMH)
Uparitzaga, 12 behea
ELGOIBAR Gipuzkoa
T. 943 744 040 E. ils@ils.es
www.ils.es

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



FABRIKAZIAREN
ZENTRO AJURRATUA
CENTRO AJURRATUO
DE FABRICACION



Cambridge English
Exam Preparation Centre



Segi dezagun elkarrek